

# Erlojuen mekanika

JOSE LUIS OTAMENDI

 **Susa** poesia

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.  
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2007 Jose Luis Otamendi

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2007ko azaroa

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefona: 943 83 26 55

Elektroposta: [susalit@armiarma.com](mailto:susalit@armiarma.com)

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

**BAT**

---

# MUNDUA

Gu munduarenak gara  
baina mundua ez da gurea  
gu euriarenak gara  
jendearenak gara  
baina mundua ez da gurea

munduak baditu bazterrak  
maitatzeko eta desmaitatzeko  
kale arte eta egunak  
etxe jaso berriak zelai izoztuak  
errepide argiztatuak gauean  
munduarenak dira

nahiz munduan bizi  
nahiz mundua gugan bizi aldi batez  
mundua ez da gurea

denok gara munduarenak  
batzuetan ematen du munduak baduela jabea  
esaten dugu badela gure mundu bat  
gurea ez delako defenditzen dugun mundua  
gurea izan ez dadin defenditzen duguna

denbora eman zaigu bizilekua bilatzeko  
baina ezin dugu ase bizitzeko denbora batekin  
denborak abegi egiten digu  
ontzia egiten diogu egokitu zaigun aldiari  
gero sarritan kausa ederren izenean  
mundua ehizatu lotu gure egin nahi izaten dugu  
eta gauzak okertu egiten dira zeharo  
mundua ez baita gurea

defenditu egiten ditugu  
munduko eremu eta esparruak  
jendeak izan ahal ditzan  
nork bere denbora eta aukerak  
sintaxi ulergarri bat  
ibaiek ehuntzen dute itsasoa baina  
hitzetan mamitzen da mundua  
jendea eta gauzenganako begirune eske

gu munduan bizi gara  
mundua gudan bizi da aldi batez  
hesitu gabeko euria  
giltzatu gabeko jendea...  
gu mundu gara  
baina mundua ez da gurea

---

# GEROA ASMATZEN

Itsasorik ez den lekuan itsasoa ezarri  
gorputzik ez dagoenean beroa asmatu  
edo ur tanta izan harrien muin idorrean...  
ez dut uste asmamen hutsez bizitza osa daitekeenik

irudimenak zertan mamiturik ez badu ahitu egiten  
da:

sarri nahi izaten dizut egin aitorpen intimoa  
eskuak zeruko zurajejan jarri goizeko argiaren  
kontra

amoroste umetu baten soslaia  
behin eta berriz osatzeko ekinari lotuz

ezkerrekoaren ukimenak badaki eskuin eskuaren  
berri

gosariko ontziak jaso lanbasa bihurritu  
eta norbaiten bila noa  
gaurkoa ezer ospatu gabe igaroko da  
baina zure ondoan har nazala minenean gauak

ez dut loa galdatzen jolasa hain gutxi...

ikusezin bihurtu aurretik hala ere pare bat hitz  
—gogoeta eta ekintza—  
astean bitan asmatu behar nindukezu oraindik...

elkar asmatze honekin aspertu bazara baina  
asma ezazu beste jende bat gu baino hobea  
doi-doi egunei zutunik eusteko behar duzuna  
—esan gabe doa— ahal banu  
berriro atzera so egitea galaraziko nizuke

---

# EZ DIRA NIREAK

Maite dudan eskua ez da nirea  
maite dudan herria salduta dago  
maite dudan emaztea joan egingo da

pertsona izan gura duen harria nahiko nuke izan  
hezur-mamira etortzeko ahalegin eroan  
baina negu minean iratzarritako zapoa naiz  
inork maite nauenean  
iruditzen zait azken aldia behar duela  
betiko izango dela azal-mintzeko lorratza eta likina  
beste inorentzat bide berria zidorrean...  
nondik ez dakit nori ere ez  
baina idatzi egingo dut bizi naizen arte  
(idatzi gabe ere bizi da jendea  
idazten ez duen jendea ere bizi da)

maite dudan eskua  
maite dudan herria  
maite dudan emaztea  
ez dira nireak



harria ari du jendearen gainean

eta ni ez naiz ni bakarrik:

ahotsak entzuten ditut besteren buruetan

---

# HAMAR MINUTU

Etiketarik urrutzen zaituzten hamar minutuak  
eta etxera hurbiltzen zaituztenak ez dira berdinak  
nahiz ekai berberaz osatuak egon

horren frogen bila analizatzen dut euria  
zer haizek dakarren  
nora laketzen den maizen  
eta jendearen begietan sumatzen  
ikasi dut urruntasun indizea  
herriko zumardiek uzten dizuten koska  
hosto berrien poztasun selektiboa ninietan

autobusetako kristaletan islatzen da  
munduaren parte bat  
txakur uhuria entzun eta izarrak trumilka  
airatzen dira hodei lodien atzean

txikiak eta ankerrak gara  
etxe trakets eta oinarri axalekoak altxatzen ditugu  
aurretik hezurra beste ezer ez zen lekuetan  
hamar minutu

dauzkadanak baino hamar minutu gehiago  
beharko ditut beti azalpenak emateko  
eta erlojuak kondenatu arren ez da gelditzen  
denbora

---

# HITZEZKO AUZOA

belar gorrituaren durduzamendurik sortuko ez  
badizut

oker ibili behar dut iparraren mende  
hitzen errepublika bat aldarrikatu nahian

eguzkiak zartatu teilatuak bezain biluz  
agertzeko adorerik ez badut  
ez nuke azaldu behar jendearen aurrera  
inorentzat nahi dudan hitzezko herri honetan

urruneko saminak biltzeko ez banaiz kapaz  
gurasoen omenez lore eskaintza aski bada  
ezina errenditzeko  
poesiaren aihotza uztea nuke onena

agian besteren egiatan  
neurea bilatzeko unea iritsia da  
eta belar gorriak haizearen eskua itxarotea baino ez  
du

besteren ederrean etzan gura eskuzabal hau  
gordeta

gaitza da agindu ez diren hitzak ahaztea:  
batzuetan nahikoa oldoztu bako  
ekandu ergela da bizirik segitzea

---

# PAPEREZKO ORRIAK

Paperezko orriak pasatzen ditut:  
orri bat egun bat  
orri bat joandako lagun bat  
eta denboraren nekea sumatzen dut  
zubiei itsatsia errepideari zuhaitzen gerriari  
begikotasun honek bere zaharrear  
beroki tupituen ukitua du  
eta zirkin egiten du batzuetan  
azken natural baten beldur balitz bezala

ez dakit zilegi den edo bestelako auzia den  
hiltzeko beldurra izatea  
agintari on eta txarrik gabe betiko gelditzea  
eguneroko gauzei agur esatea  
irriak patriketan gorde eta zu ez ikustea...  
orriak amaitzen zaizkit  
eta berriro hastapenera itzuli eta  
ekiten diot papera esku artean maizteari  
ikara-antzean

orri bat egun bat  
orri bat joandako lagun bat  
(eta hemen idatzita utzi arren  
pendiz honi galga nola jarri ez dakit)

---

# NEGUKO HITZAK

E  
dozer lortzeko adina indar badugula ematen du  
baina ez da egia  
nahi izatea aski dela  
ate guztiak zabal daitezen  
nahikoa dela gogoia  
elurrari ekiteko edo atertzeko  
eskua eskuaren bila abia dadin ilunean

ez da egia beldurak janda bizi garela:  
luxuzko animaliak gara  
denbora daukagu  
ustez denboraren aztiak gara  
urteak eta urteak ditugu  
denbora azpildura guztietan  
zorionaren euliak gizentzen  
eta ezin dugu etsi gure aldia amaitu zela esanda  
berriak badatozelako aringarriarekin

ez dira egia batean kabitzen  
gure beldurra eta indarra  
zeru erdi mamurtua utziko diogu jendeari oinetan



eta kosta egingo zaigu esplikatzen  
horrek behar zuela gure ametsen sabaia  
absentziaren iragan gertua izateko galdu genuela  
horrenbeste urte eta neke

baina geratzen zaigun denbora ahitu zain  
bizi behar badut  
minbizi txar batek noiz eramango  
nire orduen alde hiltzen dituztenen orduak jaten  
nire minutuengatik  
dana emoten ari direnen  
mendea xahutuz  
gezur hobietan erreko da nire hitza  
*porrot caviar* baten aparretan

---

# EKAITZAREN GORDEGIAK

Ekaitzak txingorra eta harria bota  
eta gotortu egiten da bere gordegietan  
belarra jende apala legez  
uzten dioten tokian  
hazten da isilean  
mozten duten arte

jendeak lur eremu batean  
izan nahi genukeenaren koloreak  
bilatzen ditugu  
eta hazten ditugun seme-alabak  
aberri galarazi bat bezala xerkatzen ditugu  
gure herriko abestietan

---

# ITSASOEN JABETZA

**K**artazalen elurte zurietan  
jausten dira hitzak  
grinarik piztu gabe:  
zer da postaririk gabeko helbidea  
kale izena mendian  
ibaiaren hondalean trabaturiko eztarria zer da

harrizko eskailetan gora  
iritsi naiz etxera  
maila bakoitza hurrengoaren promesa da  
beti dago hala ere sartzerik ez duzun  
gelaren baten susmoa  
bertakoak ez garela gogoratzen

zure irribarrearen krokisak  
noraino eraman nazakeen  
disimulatzen ikasi dut  
hortik hasi naiz estrategia zoro hau erredaktatzen  
hurrena itsasoen jabetza  
aitor dakidan porrokatuko naiz

ordua galdetzeke bizi da jendea  
etxerik gabe hitz gozorik gabe  
minari lorontzia non paraturik ez...  
ausazko hariak lotzea maite dut:  
nire eskuetako marrek  
nonahi dituzte josi-askatuak

---

# ARRAZOI BEZATUAK

izutzen zaituzten arratoi bezatu horiek  
laborategietan filmetako estoldetan  
euren heriotza antzezten jartzen dituzte  
beti dira gertu eskura erabilgarri  
neguko paisaje bustietan

argi laburrekin pasa da autoa bizkor  
eta badakigu badirela beti argitu gabeko eremuetan  
zain dauden begi txikiak  
lurruna sortzen duten arnas hobiak

antzeko egun baten gomuta datorkizu  
helikopteroa entzuten zela orduan  
zeru itsuan jendearen gainean  
eta zein gozo hartu zintuen oheak  
bere galdera guztiekin

izutzen zaituzten arrazoi bezatu horiek  
hor dira gaur ere  
zalantzak kolpatuz beldurrak zurkaiztuz  
hitzen eta gogoeta ehizatu berrien gose

arrazoi bezatuak ametsen hondakinekin  
irritsen sarraskiekin gizentzen dira  
ezin dira ase hurkoen gosez ez bada  
eta inoizka taktikoki arratoi heziek bezala  
antzeztu egiten dute euren heriotza

---

# GALDUTAKO ALDIAK

Galdutako aldiei  
galdutako ardiei bezala begira jarrita  
eguzki itsuaren errainuak  
nagi idazten ari dira arbelezko teilatuetan  
entelegatzen ez dudan mintzaira batean

gorputzaren adierazpide soiletan  
errenditzen ditut sentimenduak  
*itsasoa* esaten dut baina  
*logura* esan nahi nuen edo *auto ilarak*  
ordu baten okerdura etortzen zait gogora  
hurrena zure izenak falta dituen letrak ari dira  
oinezkoen bideak hesitzen zumardian: *r-a*, *u-bat*, *l-a*

ez nago zure zain bakarrik gaudela idazteko  
ez dut barren huts hau  
geroaren malenkonia nagituaz beteko  
irriantza jartzen diet ebakien ahoskerari  
ez daudenen egunerokotasuna  
mutiltzen zait burmuinetan  
eta ez dit pentsatzen uzten

eguzki zikindu batek lausotzen dit arnasa  
baina hemen nago oraindik  
zoriontsu izateko delibero fatalistarekin  
—lor্তু edo lehertu—  
honezkero inork ez bainau aterako onik  
nire gorputzeko igogailu matxuratutik



---

# MAKETA

Zilarrezko paperarekin egin zituen ibaiak  
kotoizko zuhaitzak jarri zituen ertzetan  
txakurrak umeak eta zaharrak pasieran  
gazte bat arrantzan gerrirainoko botekin  
pentsa zitekeen etxe jaso berri haiek betiko zirela  
handik gertu zelaia egin zuen goroldioaz  
zigarro kea bota zuen birritan tximiniatik gora  
jaikitzaera egin zuenean goibeldu egin zen zerua  
soinean zeraman trikota urdin ilunarekin

jende buila entzun zumardiaren aldetik  
*gorak! eta herriak!*  
salara jo zuen balkoitik kalea begiztatzeko  
ez zen ordu hartako inor falta plazan  
tarte bat eman zuen arratseko airea arnasten  
lehengo egunen gomutei  
inoren biharkoenen usaina hartu zien  
isiltasunak azkazalak izerditu nahi izan zizkionean  
itzuli zen gelara

ibaiaren leinurua  
mailatuta zegoen bi tokitan  
elizaren atzean auto bat ikustea iruditu zitzaion  
hilerriko bidean ezkututzen...  
kezkatu zuten bala zorroak  
aurkitu zituen bazterretan  
kale zoko batean odol arrastoak  
presaka itzalitako argiak eta  
bihotz uzkurtuen koruak bebarruetan

makurtu zenean  
uraren azaletik erreskatatu zituen  
plastikozko txakur handiegi bat eta arrantzalea  
gero gurasoen etxea zapaldu eta apurtu egin zuen

**BI**

---

# OGIAREN KONKISTA

**b**adago ogi apurrak nola jaso

erakusten duen artea

begirada non tinkatu

makurtzeko manera...

eskua luzatu

hatz artean dakarzun papurra

halako batean lanbroak jandako herria da

paper loratuko logela

lanik gabe dagoen auzoa

afaria gertatzen ari da laurontzat

azken asteko gerriko min hori

zerk sortua dizun

irratiko ahots eztiak azal diezagun

jarri gara zain denak

igogailuen marruma entzuten dela

adiskidetasunarekikoak ardailarik gabe betez

jan ditugu mahai gainekoak

—justiziarekin batera ote daiteke askatasuna...—

ardoak eta solasak

ematu digu bakailaoaren gazia  
zigarro keak erretako begietan  
pausatu zait bekozkoen argia...  
etxerakoan lagun izan ditut  
patrika zokoan aterpe hartutako ogi apurrak

maindire artean  
galdatu du babesaren birrin sortak:  
ogia zu eta hiruok  
*ménage a mille*  
ogia epai eta kondena  
interfono bat da gela  
munduko min orok du hemen eztarri  
elkarren nekazari  
neka arazi dugu elkar  
ogia mihi eta opil

---

# GIRO DAGO

Giro dago paseatzeko  
ibaiko harriak jaso eta azpian begiratzeko  
inoren izenik itsatsia ote duten  
ingerada eta oroitzapenik falta den  
badirelako izena baino lehenagokoak

giro dago hegazkinen arrastoari jarraitzeko  
urrutiko herriak gogora ekartzeko  
obusen jauste pisuari so egin eta  
jendearen tristezia irudietara bildu  
biharko egunkariari beti goiburu segurua igarriz

giro dago erreteilak egiteko  
baratzean jardun eta  
adiskideei bisitan joan arrantzan ibili edo  
loreak ohiko legean bide bazterrean paratzeko

giro dago gordean edukitakoa gozo esateko  
auzoaren osasunaz arduratu  
zerbait erosi eta gertukoenei agintzeko  
zu ez bazara ni hemen izango garela bihar ere

gaur eguraldi zoragarria dago amets egiteko  
kontrolak kentzeko amoranteak uzteko  
eta presazko beste lanetarako

gaur giro dago gaugiro dago  
zure besoen artean kabitzeko moduko herri bat nahi  
dut

eta iluna ez da ikusten

---

# GOSARIA

jendeak ontzi bat bezala betetzen denean  
edo oihanpe itsua legez zarratzen bada  
egiten du planto  
eta maiz horrela uzten dio bizitzeari  
bestela bota egiten dute  
edo ezabatu eta ahantzi

bart semea hurbildu zait  
gau beranduan loak hartu ezinik  
hil ondoren zer gertatuko zaion kezkarakin:  
hosto jausien dantzak  
eta haren ahots hauskorrek  
estali didate munduaren ikusmira...  
musu eman eta ohera doa

auzoen erlojupeko orduen segida  
ezin dela nekarazi pentsatu  
eta umearen ezpain hezeetan  
etorkizuneko kanpalekuak eta  
ibaien ibilgua bistaratu zaizkit  
argia amatatzeaz bat



goizean semeari paratu behar nion  
gosariarekin aurre-gozatu naiz etzan orduko  
eta loari gutun laburra idatzi diot aire beltzean...  
oker nenbilela uste dut  
uste dut geu beste ezer ez dela geure geroa  
baina jende artean jokatzeko dela

---

# ESAN EZ DIRENAK

Etorriko da  
esan eta idatzi ez dituzunak  
esan eta idatziko dituen eskua  
elkarrekin ahazteko beta izango da  
baina beti norbaitek ezarriko du  
harria harriaren gainean  
eta ordurako axola gutxiago izango dute  
esan ez zenizkidanek  
elkarren arrastoari segitzen diogu  
zer galdu handia duenaren arduraz

etorriko da nahitaezko esku hori  
hatzez hatz berrituko da  
inor tronpa ez dadin  
inork pentsa ez dezan  
berea zenik azken maitasuna

---

# HAURTZARO GALDUA

Ez dakit gauza normala den  
ez dakit zabarkeriagatik izan den  
edo besterik gabe  
gertaeren indarrez  
baina gaur haurtzaroa galdu dut

ez dakit noiz  
ez dakit nola  
baina bat-batean gaur goizean  
haurtzarorik gabe jaiki naiz  
oinak non nituen  
egin dut neure kautan  
eta burua non dudan  
burua eta oinak  
bat egin zaizkit gogoan  
gero begiratu eta  
bakoitza bere lekuan zen  
oinak behean eta  
burua goiko aldean

ez dakit  
horretarako adina  
heldua zaidalako izango zen  
edo inoiz  
zerbait oker landatuko nuen  
pentsamenduaren ortuan  
baina kontua da  
gaur haurtzaroa galdu dudala  
gabe nagoela  
beste nonbait dela  
edo besterik gabe  
aienatu egin zait  
ametsen zakarren artean

kontua da  
atzo aldean  
moldakaitzago naizela  
baldresago nabilela  
ezertara iritsi ezinik bezala...

ez dakit noiz  
ez dakit nola  
baina etsi dut  
neure haurtzaro galduaren zuloarekin

biziko naizela aurrerantzean  
izan ere  
lanetik irten  
eta beste egitekoak  
burutu ondoren  
ez zait denbora larregi geratzen  
—gogo handirik ere ez—  
haurtzaro galdu baten bila  
hasteko orain

---

# BILAKETA

Zure azal zatia heldu zait  
gutun batean:  
altxor baten mapa da  
eta hurbildu beharrez  
urrundu egiten nau

argazki zahar bati bezala  
begiratu dizut arratsean  
zein bakarturik nabilen  
ekarri didazu begien aurrera  
zu aldiz oraindik ibaiaren eta  
beste gauza askoren ondoan zaudela

lot nazazu iman batez  
hozkailuko atean  
han zabalak dira eremuak  
aise kabituko da  
nire irritsen eldarnio kartografikoa

kartazalean helbidea idatzi dut  
keak hartutako herrialde bateko  
etxabea imajinatu dut:  
atarian ni zure ondoan nago  
haragi bizian daukazu besoa  
baina gu beste batzuk gara

---

# NO MAN'S LAND

«**n**ahi baduzu bada no man's land bat  
no woman's land bat  
inor gabeko lur bat  
aukeran dira:  
hiriak kronikak ibai bazterrak  
zaldi gaineko estatuekiko zumardia  
eta oin beste ihesbide»

neure ahotsa entzun dut  
nire buruari jomuga turistikoa  
saltzen ari banintzaio legez  
bihotz nekatu bat bezain  
zahar eta erori

ez dut neure larrua eta hezurak  
beste lurrik behar  
bakarrik egon nahi dut  
betierekoan indarra izango duen  
erabakiaren zamaz egon  
neure hitzek baino  
neure ekintzek eta zentzumenek  
besterik ez nazaten engaina



ez dut galdutakoa deitoratuko  
bakarrik egongo naiz  
egon  
hotsak guruinak mintzak  
edonondik jausten  
alfonbra maiztuen gainera

no land's woman  
no land's man bat naiz  
beti nago entzuteko  
paralelo eta meridiano lerroen artean  
trabatutako jendea joan-etorrian:  
mintzoa eztula pausoak...

inor gabeko lur  
eta lurrik gabeko inor  
izan nahi dut

---

# TURISTA

**K**ale arte zabalean usaimena gidari  
larritu egiten nau zentzumenen fribolitateak  
uste dut jakituria galkor gerta litekeela:  
hitzak lokatzen zaizkit  
obrero eta ikaslerik gabeko iraultzak  
herririk gabeko askapenak  
hatzen artetik doaz ihesi  
gogoaren hondartza errautsezkoetan

urteak kezka iturri zaizkit  
Paris okupatu honetan  
hizkuntza okupatu bateko  
agente bikoitza bilakatu naizela  
ari dira hiriko seinaleak goraki  
*rive gauche* eta *rive droite* zerk ebakitzen duen  
ikasteko parada izango ote dudan neure aldian...  
Sena azken beltzean ubide errimea dela  
inbasore baino bagaren pentsatzen jartzen naiz  
nola askatu Paris okupatu hau  
bisitari belaxkaren esku zurioi diedan beldurra  
arreba txikia banu bezala zaintzen dut

eta ur uherretan nabil

(desertatu egin nahi dut turisten armadatik

edo dena utzi eta beste aldera pasa):

*rive droite* hemen

*rive gauche* han

---

# OINETAKOEN BISAIA

Oinetako urduriak oinetako lasaiak jagon ditut  
Madrilgo metroan  
oinetako harroak oinetako tristeak  
zapaltzen duten lurra abailan mugitzen zaiena  
oinetako hezigaitzak eta egarrituak  
oinetako auhenkariak lurraren erraietan  
oinetako depresiboak eta otzanak

oinetakoei galderak egiten dizkiet  
Madrilgo metroan  
so egiten diet bekoz beko  
begirada urdurien begirada lasaien  
begirada harro triste hezigaitz egarrituen beldurrez  
begirada depresiboen  
begirada auhenkarien eta otzanen lotsaz

oinetakoek jendea bere soinera daramate:  
bakun izate hau den gaitza  
ez entzuna egitea barbaro izutu horri...  
euretakoa naizela esan didate zapatek  
Madrilgo metroan

---

# EGUNKARI ORRI BATEKIN

**b**il nazazu egunkari orri batean  
bil nazazu  
beldurra baitiot datorren gauari  
bakarrik eman beharko ote dugun  
hainbeste ordu hainbeste leku  
elkar topatu ezinik errari

jar iezadazu egunkari orri bat eskuan  
bandera ederra inon ez den herriarentzat  
eta loak har nazan ez utzi  
amets egiten segi nahi baitut oraindik  
neure hitzekin neure herrian luzaro

jar iezadazu egunkari orri bat eskuan  
herren ez egiteko  
eror ez nadin  
ez dezagun inor kondenatu  
lehengo egunen iraganmin itsura

bil nazazu egunkari orri batean  
hormatu egingo naiz bestela  
gauaren hotzean mundutik lekora  
bil nazazu egunkari orri batean  
bil nazazu  
eta maita nazazu gero

---

# UDA HONDARRA

Errezelak kenduko ditugu bi gelatan bihar  
lorontziak hustu eta ohe estalkiak batu  
armairuetan itxita utziko ditugu  
asteotako kresala doinuak ardo mindua  
aita-seme arteko haserreak  
eta berri lazgarrien orban arrastoak

negute luzerako gertatu gara berriro:  
agurtu ditugu auzoak  
bahituran daramatzagu liburuetakoa  
orri tarteetan hondar aleak  
eta gauzei itsatsitako hezetasun ahaztezin hori  
hezueria nostalgiko modu bat

ezki hosto gorrituek esan ahalko dute  
itzultzeko asmoarekin partitu ginela  
horrela utzita inork egiaztatu ezingo duen  
errazkeria bilakatuko da datorren urtea:  
leihoak zabaldu lizun usaina kendu pozari  
kimu berriak adarretan...

maindirez estalitako altzaria ematen du gaur  
munduak

nekez onartzen dute autokritika nire sentimenduek:  
galtze txarreko odola daukat



---

# ERLOJU OTE NAIZ

Jendearen zainetan odolak bakun jotzen du ordua  
eta edozein kaletan nahigabe bezala  
erlojuei begira jartzen naiz  
sinetsi nahirik goizeko mugimenduak  
joan-etorriak batera mintzo direla  
anabasa honetan guztian badela erritmo arautu bat  
sentimenduek badutela nondikoa eta norenganakoa  
ezer ez dela zeharo alferrik galtzen  
eta munduaren denborak  
egin behar duela bat nonbait  
erloju ankerren esfera trufariez landa

ordenaren ilusioa mehetu ahala  
erlojuen ahotsek limurtzen naute  
eta orduen borobiltasunak  
inoiz denbora ere  
liluratua behar izan duela begitantzen zait  
baina orduan norbaitek zigarroa piztu  
edo auto marrantatu bat ageri  
eta abaila hartzen du berriro egunak:  
zein bere odolaren gordegietara bueltatzen

sumatzen ditut pertsonak  
eta erlojuen zalaparta zoroa inguruan...

bakan maiztasun jakinik gabe  
burutzen dudan ariketa da  
lehen orduan kalera irten eta  
minutu batez eraikinetako erlojuei begira  
egotekoa...

ez naiz laketzen gertaera deslotuen diktadurara  
eta hurrengoan ere hor noa:  
neure odolaren murmurioa sorgortu eta  
erlojuen aurrean jartzen naiz denbora pasa  
nire aldia nire sasoa  
nire denbora markatu gabe  
bizi ezin duen mekanika bat naizela etsita

---

# IRAULTZAK

Sinesten ez dudan iraultza bati buruz  
hitz egin nahi dut  
munduan jende bakoitzari bere leku doia  
ematekoa dena

sinesten ez dudan iraultza bati  
egin izan diot otoitz  
ez humanitatearen alde  
inoiz nire bihotz loka piztu dadin baizik

sinesten ez dudan iraultza bat  
helduko da jendea lo dela  
aldatuko ditu gauzen neurriak  
aldi bateko bederen

justizia poetikoa  
ederra izango da bere krudelean  
justizia eta poesia ahaidetu ahal balira legez  
ausazko errepubliketan

sinesten ez dudan iraultza bat  
espero dut  
hitzak neure ohikeriaren morgetik  
erreskatatzeko ahalegin heroikoak leher nazan

sinesten ez dudan iraultza bat  
dut faltan  
ezinezko garaipenera arte  
ni baino jokalaria fierragoek jokatzekoa

eta hortik aitzina  
gauaren isiltasunak  
iraultzaile sinesgabeok estal gaitzan lehiatuko naiz  
sator lan fedegabeen

---

# GILA MUTURRA

Gila muturra ekarri du itsasoak haitz artera  
gainerako piezekin ontzia osatu eta  
noranahi abiatzeko  
eguzki gorrail honen karpapean  
sarea kenduta egingo dute jauzi  
lur honen ongarri izateko hautu  
gaitza egin zuten txerpolariek  
herri honen gatza dira  
etengabe jartzen dute arriskuan  
eskuzabaltasun ezin oparoagoan  
euren bizitza... eta besterena  
eta karparen bazter batean  
itsasoak botatakoak  
ontzien piezak bildumatzen ditugu  
itxaropena gizentze aldera...  
gero geure instrumentuak gertatu  
eta ikusleriak alde egin baino lehen  
nazio baten sorrera zaurigarriari  
musika jartzen diogu

---

# BESTE EGUZKI BAT

**E**z du zabaldu gaurko nahi genuen eguna  
beste eguzki bat zutitu da haren partez  
eta bart arratsean afaltzen jan genuen arrainak  
hezur luze bi zituen gure eztarrira destatzen  
beste leku batean egon nahiko nuke orain  
pinudi ospel baten mugan  
kamioiek zepa tontorrak  
nola deskargatzen dituzten begira  
beste herri batekoa nahiko nuke izan  
beste jende batekin lan egin  
eta bihotzeko zuloan dakardan liburuko  
sanskrito modu hori tarteka ulertu  
batzuetan maite dudan jendea  
areago maite behar dudan jendearen  
ordezkoa baino ez dela jabetzen naiz  
eta neu ere  
mezu ilaunak igortzen dizkidan  
beste baten tokian nagoela hemen

ibiltzeari utzi zion harria naiz  
goroldioa lotu zait kirioetan  
sei ordu barru gaurkoa amaituko da eta  
beste bulkada bat beharko da  
igogailuen marruma atoian garraiatzeko  
(hamarretik zortzik  
mintzo garen hizkuntza  
ulertzen ez duen herri batekoa naiz)

**HIRU**



---

# LEHOINABAR BURGESTUA

**h**aginlari herri batean bizi naiz  
ez geure ahoa beste banderarik  
ez demaseko itxaropenik  
bada hilerri bat urtaroen lekuko  
eta euria kristalaren kontra  
garbitzen duten autoaren eskuilak

harlauza bustiak zanpatuz egiten dut lanerako bidea  
jende ezaguna adeitsu agurtuz  
eta etxera heltzen naizenean  
botako ditut giltzak mahai gainean  
erantziko ditut kaleko arropak  
eta jarriko naiz ordenagailu aurrean

*gogorra izan da!* diot  
lehoinabar arin zauritu bat gehiago  
besterik ez naiz orain  
hileko soldata garaiz helduko zaion kezkarekin

---

# HAGINLARIAK ESAN DIT

haginlariak esan dit  
ez dudala neure burua sobera maite  
ez dagoela aho aldeia  
izurriak jotako kanpalekua bezala  
abandonatzerik

harenetik atera eta  
ibai ertzean egon naiz  
aldi batez urari so:  
ispilu berriek jende berria  
islatzen zuten autoen kristaletan

tu odolduaz seinalatu dut  
etxerako bidea ilun aratzean  
eta nire hortz-haginak  
eginkizun jasoagoan  
enplega ahal balira:  
haur jolasetarako lehengai izan  
edo pozoi hilgarri bihurtuta  
herriko ur depositoetan isuri...

zahar-etxe albotik pasa naizenean  
gomutatu naiz  
dentista lagunari  
nerabearen begi larrituak  
ikusi uste dizkiodala

orduan agindu diot neure buruari  
aurki itzuliko naizela  
tartetxo batez bederen  
haren bakardadea artatzera  
neure haginena artzain

---

# GAZTIGUA

Īnoren mesedeko gerta ledintzat  
nire inguru gertuan jazotzen ari diren  
eraldaketa gaitzen berri eman nahi diot munduari:  
azkenaldion ez nabil boladan  
mekanikaren eta optikaren legeekin  
jendea gero eta sarriago jartzen da  
nire ikusmenetik hara  
eta dutxapetik irten eta lehortzeko  
besoekin iristerik ez daukadan  
gorputzeko atal eskuraezinak  
orban ilunak bezala ari zaizkit zabaltzen

makurtzen hasten naizen orduko  
beti urrunagora joaten tematzen dira nire oinak  
hatzen eta behatzen arteko kidego behiala sakon  
hura

gaztaroko oroitzapen lauso bihurtzeraino  
eta urrin esne mindu bezalakoa...  
hala ere beldur naiz  
iraultza seinale hauek guztiok  
oker handiagoen atariko ez ote diren

eta ondorioz etor litezkeen gertaera larrien  
jendaurreko ohartarazpena egiteko ardura zibikoa  
betetzat jotzen dut honenbestez

---

# ORDEZKO HAGINA

haginlari lagunak  
hagin distiratsua ezarri dit  
eskuin matelezur erditsuan  
hobi sakona gertatu dio hilabetez  
zula eta zula aurrena  
enkofratu zehatza burutu  
eta betelanari lotu zaio gero

arnasarekin lausotu dizkiot arratsalde asko  
zuloari horma egin dio egoki txertatzeko  
eta kristalezko haginaren oinean  
zementua oparo banatu  
bitartean prentsak berriak ematen jarraitu du  
ilargiak birritan egin du goitik behera

haginlariak ispilua paratu dio  
—lilura hartan sorgindu guran edo—  
hagin etorri berria argi ikus dezadan  
neure senti dezadan  
eta abaro mundutarraren jabe  
eginkizun zerutiarrei atxiki

arraberritzearen seinale zatekeen hagina  
kristalezko txerto soil ez balitz...  
miretsirik abiatu naiz etxera  
kantu lanbrotsuen leloak murduskatuz  
nire mihiaren gau itsuen argigarri  
hagin bat baino atoi astuna  
izar izoztu bat erantsi didalako

bentzutu nau azkenean  
erresistentzia oro uxatu da  
badator barrunbeen inbasioa:  
Paris okupatu  
kanpoeder bat naiz  
*kolaboz* betea ahoa...

---

# ZINEMATIK BUELTAN

hிலero saria hartzen dut  
gobernutik  
eliza ararteko dela  
horrek lotzen dit mihia  
lotzen dizkit gogoaren goiko neurriak  
hitzartutakoaren ordaina ematen baitiet nagusiei  
diru trukean

eta diot ezin naitekeela beti garbi mintza  
orbana daramadala aldean  
gezurrak ortuariak bezala jagotera jartzen nauena...  
baina jaten ematen didan eskua  
zintzo gorrotatzen dut  
lan orduz kanpo  
eta musutruk



---

# INDUSKETA

**M**argoak aurkitu dizkidate  
ahoko zuloan  
antzinako zibilizazioen baten  
ikono gordeak...

ikerlariak irudiok aztertzen unatuta  
atseden hartuko dute hagin belztuen gainean  
esploratzaile bat aurrerago ausartu eta  
troka zulo batetik oihu lazgarri samarra egin du  
ez duela betiko nahi eztarri hotz horretan

barkamen eske epela egin dit haginlariak  
aspiragailuaz ito-larria eragin didalako  
(ez sufritzea zoriona da  
minik eza da bakea...)

luziak izan dira ezabatutako arrastoak  
hezur hotsak eta ur lasterrak...

jende sailak ikusia naiz kontsultan ahoa zabalik  
atzapar arrotzek noiz arakatuko

noizbait eremu babestu izendatuko naute  
edo naturgune berezi edo ondare artistiko  
eta bisitariarentzat erreplikak egingo dituzte  
hortzak kamuts aho sabaia arriskugabe  
hatsa gozo bilaka dakidanean  
eta nire ahoari buruzko kronikak  
idatziko dira udako egunkarietan

---

# MINOTAUROARENEAN

Gorputz honen alternatiba onargarririk ez dut  
kausitu

abdukzioaren artea helgaitza zait gaurkoz  
horregatik neure baitan penatzen naiz  
izunak zaizkit kondizio esklabo honetatik  
askatzea agintzen didaten kontsignak oro  
saiatzen naiz gogoaren eta soinaren  
arau larrietara moldatzen  
konformismoaren paduretan zeharo ito gabe

arrunt motzak zaizkit  
entseatutako gimnastika anitzen emaitzak  
—gorputza maldan behera nola doan  
begira nago muker gogoaren nasatik—  
besterik ezean errebisionismo epelenari men egin  
eta

sabotaje ekintza xumeak gorabehera  
azken hatsa zahardadean zurkaiztuta ematearekin  
etsi dut

neure gorputzarekiko aurkakotasun gorrian

---

# SEI HILABETEKO ATSEDENA

Sei hilabeteko atsedena agindu die haginlariak  
ahoko hortzei haginei zuloei  
orduan ekingo omen diegu  
asmo ausartagoei  
goragoko helburuei  
protesi txiki bat hemen  
azal berria hor  
zubiak eusgarriak  
zundatze eta betetze lanak  
aro berri baterako aho berria

uste dut poz eman nahi zidala  
geroari buruz arreta erne  
eta ingeniarien atzera ezineko  
itxaropena txertatu niri ere  
tunelaren begi biek  
bat egingo dutelako fede itsu hori

konplimenduzko irribarrea  
itxuratzen saiatu naiz  
ez dadin zapuztu  
ekindako lanaren neurriarekin  
—lagunaren ahoa  
antzoki bateko dekoratu bihurtzearen ederra—  
eta prima dona baten sentierarekin  
esan diot baietz saiatuko naizela  
sei hilabete sei urte sei mende barru itzultzen  
aho itsustuen geriza bustian eutsiko diodala  
itzultze eternoaren kausa nobleari

---

# MUTAZIOAK

**h**aur izan nintzela ez zait atzendu  
nahiz sinesgaitza gertatu egun  
noizbait ume izan ginela:  
gure adina gure larderia  
zimurren eta girgilen zizelatze neketsu hori

infituraino ekarri nahiko nuke  
iraganminik gabeko begirada  
aldi berritzen dena  
hodeiertza  
luzerako indarra duen poza  
paretan jartzen duzun argazki ederra  
urtaro bakoitza amoroste banatan iragazia  
kristalezko bakardadea  
barruko arnasetara bildu nahi eroa:  
ez gara inoiz haur ginenean  
bezain bakarrik egon  
horren ginen zaurgarri eta krudel  
baina ezin dugu haurtzaroa atzendu

sinetsidazue  
ni ere haur izan nintzen  
eta urteotan  
pendiz baten urruntze kalkulatuaz  
haurrak izutzeko mamu ari naiz bihurtzen

---

# KOMUNIKAZIO AZAROA

Gertaera tamalgarrien  
eragile intelektual sentitzen naiz  
kontzientziako kargu hori itsaso aurrean egurasten  
dut  
izerdiaz garbitzen dut munduaren odola  
eta antzeko kezkek irakurtzea  
iruditzen zait jendearen aurpegian  
kalean artxipelago ibiltari bateko parte naizelakoak  
bakarrizketaren fruitu garratzez soilik  
elikatzetik libratzen nau

lasaiago itzultzen naiz etxera  
zuzen ebakitako parterre artetik  
nahiz eta gauza gehienak ordenatuago iruditu  
ez naiz atzo baino hobea  
eta aldika nire tristura paseatzera atera behar  
izaten dut

gogoeten oldea doitzearren  
besteren iritzia ere bilatzen dut inoiz  
eta gutxitan kentzen didate arrazoia hildakoek  
eurekin mintzo naizenean



---

# GARAILEEN LEINUA

hogeitaka belaunaldiren ekinaren fruitu da  
arnasa hartze hau  
etengabe hobetutako teknikaren emaitza:  
bertan dira erretenetako urak eta zakarrak  
itsasargiek ontzi ikusezinei egin seinale galduak  
urteetako gimnastika bortxatua  
biriken errutina pausatuari men egiten

arnasa hartu dut berariaz  
zoru honen ganean oina tinkatutako  
mila jenderen ibilera dakart nirean  
joan den neguan ezpaldu zuten  
azken aurreko genealogi arbolan  
herri torturatuak daude eskuan aihotzekin  
gu ohe hotzetan loak noiz hartuko

barruko arnasa hau  
itota hil zen ezezagun batek  
eman dit ondorengotzan  
gure aldi durduzatu honen aldera...

ispilu aurrean orraztu eta  
banator bigarrenez mundura:  
gaur ere bizien artean izendatu naute

**LAU**

---

# EZIN BESTEAN

batzuetan nahi duzun tokian zaude eta bestetan ez  
batzuetan nahiko ez zenukeen tokian egoten zara  
ezinezkoa izaten da nahi duzun lekura joatea  
nahi duzunean tokiz aldatu eta  
bizi izan duzun hori guztia  
batetik bestera zeurekin eramatea  
batzuetan libre mugitu zaitezke eta bestetan ez  
batzuetan ezin zaitezke mugitu  
edo ez duzu nahi

batzuetan zeuk nahi ez duzun toki batekoa zara  
beste batzuetan zaren tokikoa nahiko zenuke izan  
baina ez da erraza inon  
batzuetan beste baten larruan bizi nahiko zenuke  
beste etxe batean beste kale batean  
eta bestetan zeuk nahi duzun kalekoa zara...  
zauden zaudenaren neurrira egin daiteke  
batzuetan zauden tokikoa zara  
eta askotan ez dakizu nongoa zaren  
edo ez dizute uzten

batzuetan nahi duzuna zara  
bestetan beste bat zara  
inoren baitatik kendu atera erauzi eta  
beste nonbait txertatua  
batzuetan beste norbait izan nahiko zenuke  
eta nahi ez duzula ere  
ezinbestean zeure soinari hertsiki josia  
ia beti  
zu zeu baino ez zara

---

# NEGUAREN ARNASA

hartzik gabe jaten nau neguak  
izan ziren seinaleak:  
hosto galtze zoro bat  
ilunpeko etxeak deblauki jendeztatzea  
istil hotsak han hemen  
ukimen soilez kainuen negarrak  
zer zekarren ez zen asmatzerik  
ura olio ardoa...

txakur hats busti artean  
jaikitzen ginen goizero  
esne-zopa hotzak jan eta  
kalean zokomiran eman orduak  
gaitz bat hedatu eta  
denak gorde ziren laster  
ez ohe doinurik entzuten zen  
ez lo hotsik gauez  
ez zen arroparik leihoetan eguzkia estaltzen

airea promesaz enpo  
joan egin ziren denak  
usaina galdutako lau katu geratu ginen  
edo bost beharbada...  
bihotza bonba-auto txikia bezala  
lehertu zitzaion alboan nuenari  
hondakinak tonaka atera zizkioten barrutik eta  
isiltasuna etzan zen gure gainean  
...orain hitzik gabe jaten nau neguak

---

# GALDERA INOZOAK

**b**elar onduarekin amets egiten dutenek  
gaua non ematen duten  
jakin behar dut  
azalaren kolorea begien distira  
hautua ez den bakardadea  
zer harrotasun dagoen zer usain  
ahantzeko margotutako sukaldeetan  
nola ikasten diren besteren hizkuntzak  
nola den galtzen norberarena  
ulertzen ez dituzun hitzak  
non zauden ez dakizun planoak argazkiak  
izen zaileko gaixotasuna beste inori pasatzeko  
ardura  
zurea balitz bezala bizi beharra

hegaztia da jaten ari naizena  
ez du lumarik ez du arnasarik hartzen  
hilzahar dago dagoeneko  
sardexkaz mugitzen diot hegoa  
plater honetan ilar artean  
frijitua agertzeko sortu bide zen  
etxalde itogarri batean



aterik zabaltzen ez duten giltzak  
eztarrian trabatuta zergatik dauzkagun  
jakin behar dut  
noiz hasi behar dugun giltzoi etxea egiten  
hitzoi eztarriak idazten  
nora garamatzaten ez dakigun  
autobusentzat errepideak egiten noiz  
eta gisako galdera inozoak  
arrazoiaren amets birrinduekin  
desesperoan elkarri lotutako pikor besarkatuz  
hondartzak eratzeko  
noizbait geure *chambre d'amour* hilgarria  
irabazia dukegula iritzirik

---

# AUTOAN ZAHARTZEN

**h**ain erraza ematen du:  
ez dut ezer sumatzen  
soroetan behar duten  
teila-ikatzez mugarriez jabetzez  
pentsatu egiten dut zelai hauen geroan  
garagarraren bilakabidean uzta heldu arte

autoak bizi naramala gogora datozkit  
boladan zenbat gauza ari naizen azkenekoz egiten:  
Errumaniako Budan ez naiz gehiago izango  
*mamaliga* eta *borsh*-ik ez dut berotuko berriz

lurpean landatuta sentitzen ditut jendearen bihotzak  
bristada itzaliak igortzen  
ilaunago batzuk indartsuago besteak  
eta neuretzat egiten dut «hau da nire herria»  
egunero azkenekoz egiten dituzun gauzak  
jendearen bihotzak tipula gorri ahotsez

autoak ortzimugaraino narama  
hurrengo ortzimuga daukat zain han  
eta aitzina noa zabaldietan barrena  
sinestunik gabeko jainko zoriontsu bat bezala

---

# BEHEKO HAIZEA

beheko haizeak uxatu ditu bero sargoriak bailaran  
leihoak zabalik ditu jendeak  
eta astiro dator arratsaldea errepidean gora  
supermerkatutik bueltan  
oker begiratu dit kalean andre batek  
—indarkeria mota oro gaitzesten  
ez duen herri batekoa naiz—  
poltsa horian berakatzatza sagardoa eta pate zatia  
kulunkatu ditut etxeraino  
—bokartak hilda daude hozkailuan—  
beti nahiko nuke erosketa poltsa batekin ibiltzea  
hori izan bedi nire kondena  
neure baitako *no man's landean*:  
guztiaren lekuko izateko grina eta  
beranduegi ote zabiltzan beldurra elkar joka  
eta ito egiten nau horrek  
ez goseak edo aterperik ezak  
jendea itotzen duen eran  
arnasa hondarrez betetzeko beste baizik  
—ez dago dena zertan idatzi—

hatza luzatuta haur bat  
kosta aldera doazen ibilgailuak  
zenbatzen ari da bankariaren arretaz  
tresna indartsua da zenbaketa  
zuhaitzak pertsonak hegazkinak konta daitezke  
saminaren eta pozaren konpasari antzeman  
gauzak ulertzea eta gauzeekin bat egitea  
gauzengandik urruntzearekin bereiztu  
—behin beti gogoan izango zaitudala  
agindu nizula uste dut—  
andre batek oker begiratu dit eta  
negu arrapiztuak esetsi nau sukalderaino  
sagardoa freskatzen jarri dut  
—jaiotzatiko hiltzailearen marka daramat soinean—  
eta ezin dut arrain usain hau kendu eskuetatik

---

# GERTABERRITZEA

teklatuaren memoria arakatu nahi izan dut  
hatz mamietan taupadak igartzeko  
grinaren ukenduaz osatu ditut  
nire odolaren akorduan  
zartatutako liburuak  
merkataritza-ontzi bateko biztanle izateko  
goraki esan nahi dut  
mundu nahasi honetan  
bizi den gizona naizela  
(...egungo aristokratetarik)

letrak ere banaka paratu nahi ditut  
elkarren babesean laineratu ez daitezen  
uste ez dezaten ez direna badirenik  
baina deblauki hitzak euren kodainarekin  
kristalezko mendien gardentasunez  
ebakitzen dira plaza librean:  
zer egin handirik ez dagoela  
ortzi urrun batetik jausi aerolitoen  
mendeko sentitzen naiz  
(...inoren zaurien kaligrafiak berritzen)

esan nahiko nuke memoria herbala dela  
orain ezin bazaitut ukitu  
pantaila berri batera joaten naiz  
oroitzen zaitudanean  
ez zure aztarnen bila  
kate-erreakzioen beldurragatik baino  
letra beharraz enpo  
azken esaldiak eratzen zaizkit  
halako batean *poema-tranpa* suerta dakidakeen  
aieruz  
(...poesia federik gabe maite dut)

---

# KONTRAESANAK ETA ALDE EGINAK

Entzun dut gauzak konpontzeko gaudela munduan  
baina beste borroka modu batzuk badirela  
bizi garen sasoirako egokiagoak  
gizabidetsuagoak eta garaipen bati buruz egingarri  
entzun dut bide demokratikoak direla zilegitasuna  
dutenak  
zabal direla aurrerabideak hor  
ez dela sasirik ez galbiderik

ikusi dut pertsoneri borroka bideak oro itsutzen  
ezinezko batailetan azken indarrak joatea datorrela  
hortik  
munduko jendea Europa zabalean amore eman eta  
husten  
ikusi dut herrien kartzela nola den eraiki  
inork borrokarik egin ahal izan ez dezan ezertan  
populu derrotatuen hiritar bentzutuen  
Europa akitu bat



entzun dut beste borroka modu batzuk badirela  
entzun dut bide demokratikoak direla eta ados nago  
baina ikusten dudana ez dator bat entzuten  
dudanarekin

porrot egin dut  
pentsatzen dudana esaten eta esaten dudana egiten  
horregatik paratzen naiz sarri paper honen aurrean  
eta ekiten diot berriro arduraz eta berriro ahalkez  
idazteari

---

# JENDETASUNA (XABIER ALDAIRI)

Ez dago lotsatuko gaituen jaioterririk  
eta ez dago aseko gaituen sorterririk  
ez gara zuhaitzak ez gara txoriak  
sendo lotuak gaude kale hauei  
bertako haizeari bertako hizkerari  
baina gu izatez jendea gara  
ez haize ez kale ez hizkera  
maite duguna ez maitatzeko  
daukagun eskubidean oinarri hartuta bizi gara

nik ere beste nonbaitekoa izan nahi nuke batzuetan  
eta boladatan hemen bertakoa  
eta inoiz beste norbait izan nahiko nuke  
eta hurrengo batean ere bai  
baina hori ezin da horren arin aldatu  
—hainbeste larderia  
hainbeste jatortasun euskaldun  
hainbeste alderdi erlijioso  
hainbeste eskuindar pobre  
eta ezkertiar milioidun—

ederra da hegan egitea baina ez gara txoriak  
harriek bezala pisatzen dute  
sentimenduek eta oroitzapenek  
eta ibai handi batek daramatza  
milaka aukera betirako galduak  
eta egindako aukeren ondare zalantzazko hori  
urra balitz bezala gorde nahi dut

ez dago lotsatuko gaituen herririk  
ez dago aseko gaituen sorterririk  
—non ez den geure buruaren ispilu pitzatu delako—  
etxeak paratzen ditugu lerro-lerro  
bata bestearen ondoan  
kaleak osatzen ditugu  
eta kalez kale abiatu eta  
muga ateratzen zaigu bidera deblauki  
*hemen hasten da aurpegi bat*  
*hor amaitzen da bestea*

Azpeitia diot nik ere  
eta ez zait betetzen ahoa  
ez zait betetzen bihotza  
han eta hemen  
han hemenka

hangoak eta hemengoak  
jendea gara eta jendeak jendeari jende izatea dio  
zOR

askotan nonbaitekoa baino  
norbaitekoa izan nahiko nuke  
norbaitekoa izan ez ezerena ez inorena  
norbaitekoa izan zure beldurrekoa izan esate batera  
zure kolorekoa izan edo  
beste norbaiten begietan landatuta bizi

Azpeitia diot nik ere  
eta diot ez dela inon guztiz aseko gaituen sorterririk  
baina jendea bai  
eta diot ez dela lotsak hil lezakeen  
ez banderarik ez himnorik  
baina jendea bai  
(eta nahiko nuke neure lotsa zaindu)  
nik ere Azpeitia diot  
eta maite dudana bezain ozen  
maite ez dudana ez maitatzeko eskubidea  
aldarrikatuz diot  
—hainbeste kanpoeder  
hainbeste barren huts  
hainbeste aho bero eta odol epel

hainbeste gezur beltz  
eta aurpegi zuri—  
nik ere Azpeitia diot  
eta ez naiz lotsatzen  
ni ere jendea naiz  
eta hemen denok gatoz munduaren erraietatik

---

# EZ NAIZ ETSAITUKO

Ez naiz etsaituko bainuontziarekin  
ez naiz etsaituko elektrodoekin  
ez naiz etsaituko telefono listinekin  
ez leihoko erlaitzarekin ez kaleko zoruarekin  
ez naiz etsaituko poliziaren furgioekin  
ez epaitegiko eskailerekin  
ez legearen hizkiarekin  
ez naiz etsaituko eguraldiarekin  
baina loarekin  
loarekin nago etsaituta  
eta ergelkeria modu ezaxolekin  
eta ergelkeria modu axolatuegiekin  
itsumustuan lokartze horri diot izua:  
bihotza txindurritu odola izoztu zure hitzak  
ahantzi...  
eta horregatik lorik ez hartzeko moduak bilatzen  
ditut  
kafea tea pilulak hartu  
esna egoteko amarruak behar ditut  
estrategia bihurriak loaren mende ez erortzeko  
isiltasunaren azpilduretan

errepide hutsen arnasa hotsean  
jendearen begietan bilatzen ditut

badakit ez didana onik egingo  
lorik hartu nahi ez izate horrek  
baina itsumustuan lokartzeari diot izua  
eta kafea pilulak botikak hartzen ditut  
gerta ez dakidan loak bere beso amultsuetan bildu  
eta gauza guztion alderdi neutro eta lazgarriak  
nekeak beldurrak edo ekanduak  
sortutako ezbehar direla onartzea inoiz

ez naiz etsaituko bainuontziko urarekin  
ez naiz etsaituko elektrodoen poloekin  
ez naiz etsaituko legearen letra tipoarekin  
neure buruarekin etsaitu behar dut  
neure buruaren etsai izango naiz  
eta lorik ez hartzeko erak bilatzen jarraituko dut  
bihotza txindurritu eta odola izoztu ez dakidan  
zure hitzak ahanzi ez ditzadan  
gertaeren tirania zanpagarriaren aurrean  
loak sekula lo harrapa ez nazan

---

# ARITMETIKA ARIKETAK

aritmetika ariketa zoroetan sartua nabil:  
zenbat auzokide herritar ezagun  
—gogaide zein etsai kuttun—  
zenbat lagun kendu dizkidaten bistatik  
kontuak egiten ditut

jabetzen naiz  
urriko orbela bezala  
—arin galtzekoa haizearen mende—  
arratsaldeko ume zarata kalean nola  
paisajearen bazterreko osagai naizela ni ere  
soslaiia urruneko argazki batean  
etorkizun zabal eta helgaitzari  
ertz lausotu batetik kirika

arnasa hartu hiru aldiz  
eta letrak lerro-lerro paratzen jarraitu dut  
oraindik hemen nagoela  
esaten zidaten nire hatzen takatekoek  
gela datorkit begien parera  
atea gero eta paper nahasiak nonahi:



aurpegiak keinuak ahotsak  
eta izendegi amaiezina ondoren...  
—horiekin joango zen akaso ihesi zoriona—

nire baitaren deshahitatze antolatua  
salatu nahi dut  
baina ez dakit zein bulegotara jo  
nondik ekin  
nola galarazi jario geraezin hori  
—sarea naiz dena isuri dena itogin dena galera  
guardasol baten eskeletoa jasapean—  
jendea indarrean daramate  
era txarrean ari zaizkit  
ateratzen kirioetatik barrenetik  
neure azaleko usainetik libratzen  
hezurretatik itzal arrastoak xahutzen  
irribarreen orbanak  
fereka hautsien koskak  
dentistaren doitasunez  
ari zaizkit hondeamakinak barrunbeetan  
ken eta ken  
neu naizen piltzar mordo mailatu honetatik  
eta lotsatu egiten naiz  
jendeak igarri egingo baitit barren hustu hori  
begietako putzuan igeri

nire baitaren deshahitatze sistematikoa  
salatzen dut  
ezin dut onartu erauntsien mende bizitzea  
ekaitz aldi bakoitzak zer ostuko  
eta gero hondakinen artean erreskatatuko  
dugunaren itxaropenez ibili beharra beti  
ez dut naizena baino  
gizaki deshahitatuagoa izan nahi

lotsa ematen dit  
jendeak eguna joan eguna etorri  
batera eta bestera  
barrena hutsik nabilela begietan antzematea  
edo ibileran edo hitz egiteko moduan  
auskalo

jendea ateratzen ari zaizkit barrutik  
su hartutako hotela banintz bezala  
ateak ostikoka lehertu eta haurrak izutuz...  
ez naiz eskailera hautsia  
ez naiz meatze abandonatua  
neure urratu eta joskura traketsekin  
nahi ditut neure egunak bizi

eta inor nire barrutik erauzterako kontuak egin  
banan-banan  
alerik ere oharkabeen joan ez dakidan  
hemendik aitzina

nire barrua husteko  
nazioarteko konplota salatzeke etorri naiz  
eta badakit  
egin beharreko kalterik handiena egina dagoela  
berandu izan litekeela  
desegindako arimak bere onera ekartzeko  
galdutako asko ez dela itzuliko sekula  
nahiz eta halako batean  
akaso  
batek daki  
gu edo beste batzuk zoriontsu izan

baina kontatzen ahazten bazait  
galdua naiz  
—nire etsaiak nire lagunak—  
hor dago nire indarra  
horretan da nire izatea bera  
esan dezadan  
aritmetika humano bat galdatzen dut...  
nor dago bere sasoian eroso

kontatzen ahazten bazait  
nireak egin du

*c'est fini*

akabo

kontatzen ahazten bazait

*bat bi hiru...*

kontatzen ahazten bazait

kito

ni ere ez nago

---

# HILAK LAGUN

hildakoak sarri ez dira mintzo ulertzeko moduan  
argi ozen eratsu  
eta orduan —hoztu baino lehen—  
harri zur eta alegiazko lubakietan  
jartzen ditugu alde dakizkigun  
gure ondoan egin dezaten borroka edo  
gure ordeztu bestela

gerla handi zein txikietan  
izena ematera behartzen ditugu  
lekua egiten diegu eztabaida eta desfiletan  
gure ardailak eta hitzek zafrazten dituzte  
tai gabe atzituak dira  
atzenduak luze  
eta beti eskaintzen dizkiegu ereserkiak gero

geuk nahi adina bider  
hil eta arrapizten dira  
berotzen digute bazkaria  
lo kanta asmatu  
zuhaitzak aldatzen dituzte zumardietan guretzat

eta zoriontsua dirudi euren isiltasun elurtuak  
lurmendu gabe dagoenean

hildako apal eta asmo jaso bakoentzat  
akigarria behar du  
kausa zuzen eta okerraren kinkan  
ulertzen ez zaien zapa-hizkera  
moldakaizki ebaki batez  
amets egiteak betierekoan  
herri hilek bezala

hilek hauta balezate noren hildako izan  
edo zeren alde...  
baina hemen  
ezin dute erretreta hartu ez ezer hautatu  
ezin dira pausatu erabat  
eurentzat su-etenik ez da indarrean...  
biziak beste behar dira hilak neguko gordegietan

---

# ABERRIAZ ZELAN AHAZTU

Nik ere aberriaz nahiko nuke ahaztu  
eta neure herrian ibili  
eguneroko poz-nekeei indar guztiak emanda  
lagunarte xume bateko hitzak defenditu  
gure arteko hitz horiek balira bezala  
defendi daitekeen azken eremu librea  
plaza bat aurpegi bat  
norbaiten arropa artean hazten diren hitzak  
edota akordura ez datozkizun zaurien baitan  
daudenak

nik ere bizi nahiko nuke  
nor naizen etengabe galdetu beharrik izan gabe  
apalago bizi neure buruaz ahazturik  
*nik hau eta nik beste hori* jardun gabe beti  
apalago bizi ni ere  
gogoia eta adimena erantzun txikiei emanda:  
gizaki bati dagozkion neurriko kezkekin

baina errepidea galdera izan daiteke hemen oraindik

argi piztua gauean galdera da  
gauzek etengabe interrogatzen naute  
nor naizen zer naizen  
nola mintzo garen zelako lagunak ditudan  
eta modu txarrean hartzen naute gauzek  
ez didate bakerik eman nahi  
traban jartzen zaizkit zangoen tartean  
galdekatu egiten naute errukirik gabe  
zer egiten dudan hemen  
zergatik etorri naizen gaur hona  
itxitura han hesia hemen

nik ere munduko beste bazterren batean  
nahiko nuke bizi  
denek ulertzeko eran mintzatu  
ezentzunarena egin gauzen itauntze errime horri  
gauzen tematze deserosoari ez ikusia egin  
hiri jendetsuetan ibili bestelako jendea agurtu  
akaso munduko beste hainbat lekutan  
ariketa errazagoa izango da  
aberriaz ahazteko hori  
baina hemen beti ari zaizkizu gogora ekartzen  
zapaltzen duzun lurra ez dela zurea  
bizi zaren herria eta auzoa



norbaitek aldi baterako utziak dizkizula  
eta gutxien uste duzunean etxerik gabe utz  
zaitzakete  
bat-batean ez kalerik ez herririk  
ez ordurik gabe gera zintezke  
eta zeure hitzen erresuma gozo hartan  
hartzen duzu aterpe  
maite dituzenez oroitu eta joko duzu aurrera  
baina apal mintzatu arren  
ez dago aberriaz erabat ahazteko modurik horrela

nik ere aberriaz ahaztu nahiko nuke  
eta bestelako lanei lotu lehenbailehen  
aberria baino lehenagoko kontuetan jarri arreta  
gerta ez dakidan  
goizean jaiki eta herri mozorrotu batekin topo egitea  
gerta ez dakidan  
etengabe nor naizen galdezka jarraitu beharra  
noraezean bezala beti...  
baina existitzen ez dena nola ahaztu  
zelan atzendu ez den hori

nik ere aberriaz ahaztu nahiko nuke betiko  
ez balitz gu gabe ere badirelako

azkeneraino zaindu beharreko hitzak eta jendea  
ez balitz gu geu agian inoiz iritsiko ez garen  
lekuetara

helduko direnentzat gorde behar dugulako  
sekula narriatuko ez den sentimendu bat  
sekula galduko ez den sentimendua  
bakarrik gaudenerako  
urrun daudenerako  
badaezpada

neure herritarrekin batera  
ahaztu egin nahiko nuke aberria  
aberriaz ahaztekoa zama  
gaitzegia baita bakarrean eramateko  
baina denon artean aberri hau  
behin betikoz ahazten dugun arte  
nire herrian bizi nahiko nuke  
eguneroko poz-nekeei indar guztiak emanda  
apalago bizi  
gizaki bati dagozkion neurriko kezkekin  
gure arteko hitzak  
azken eremu librea balira bezala defendituz  
geure herrian bizi sentimendu bat gordean  
daramagula

bakarrik gaudenerako  
urrun gaudenerako  
badaezpada

---

# HURRENGO IZOZTERA ARTE

helduko da gaurko egunaz inor  
oroituko ez den sasoia  
jaio gabeko gudariek azken aurreko porrotaren  
emaitzak oharkabean jagongo dituztenak  
iraganak ere mando egin eta zaputz dezake oraina  
jakien gainera jausten den sabaia nola  
eta izendegi eraman ezinak  
monumentuak kale izenak kiroldegiak  
betierean nondik gatozen gogorarazten  
birrindutako poemak lokaztutako sukaldeetan

alde bakarreko menia azkenekoz  
amaitu zen aldian bizi gara  
bada denbora hozkailuan gorde nahiko lukeenik  
ihes baten eran txerriki zatiak ahoratzeko manerak  
inoren ilea berriro aspaldi atrakatutako barkua  
urrunera doala ferekatzen duzuna  
despedida handi bat itxaropenaren txirbil puskak  
patrika barrenetan haztatuz  
baliteke beranduegi izatea

urteak nekatu zaizkigunontzat  
baina izozkailuekin pentsatzen  
lokartzen ez direnentzat ez

*gertatuak ez du ardura jende esklaboa jaiki*  
erloju saldoak datoz hormatutako amildegiei buruz  
atzean uzten den oro traizionatu egiten den  
galdezka  
eta hurrengo aro bateko  
amorostea islatzen dute fiordo sakonek

---

# ERLOJUAK

Erlojuak apurtzen ditut bata bestearen atzetik  
eta txikitutako piezak  
eta kristal printzak biltzen  
joaten zait denbora  
(erlojugile baten haria erdi galtutako semea naiz  
ez denboragile batena)

erloju txikitzen jarraituko dut  
denbora egiten ikasi arte  
(erlojuak apurtzeko ez da indar handirik behar  
erlojuak egiteko jakin egin behar da nola  
jenderik edo jendearen akordurik gabe  
ezin da denbora egin)

erlojugilearena etxeko lanbidea da gurean  
(erlojugile baten anaia naiz)  
eta urteetan aurrera noan arren  
denbora egiten ikasten ari naiz  
erloju hilen artean